

HEZKUNTZA LANKIDETZARAKO HITZARMENA, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FISKALTZAREN ARTEKOA

Bilbo, 2025eko maiatzaren 13(a)

BILDU DIRA:

Estatuko Fiskaltzaren aldetik, María del Carmen Adán del Río andrea, maiatzaren 3ko 330/2022 Errege Dekretuaren bidez bere kargurako izendatua. Dokumentu honetan Adán del Río andrea Estatuko fiskal nagusi Álvaro García Ortiz jaunaren ordezkaria da, estatuko fiskal nagusiak berak beren-beregi eman baitzion hitzarmena sinatzeko eskuordetza 2025eko martxoaren 18ko dekretuaren bidez. García Ortiz jauna abenduaren 27ko 1182/2023 Errege Dekretuaren bidez izan zen izendatua bere kargurako (2023ko abenduaren 28ko BOE, 310 zk.), eta Estatuko Fiskaltzako burua eta haren ordezkaria da Espainiako lurralde osoan, Fiskaltzaren Estatutu Organikoari buruzko abenduaren 30eko 50/1981 Legearen arabera (22.2 artikulua).

Euskal Herriko Unibertsitatetik, Jose Ramon Bengoetxea Caballero jauna, UPV/EHUko errektorea (IFZ: Q4818001B; helbide fiskala: Sarriena auzoa z. g., 48940 Leioa, Bizkaia), bere kargurako izendatua urtarilaren 20ko 1/2025 Dekretuaren bidez (2025eko urtarilaren 27ko EHAA, 17. zk.).

Alde biek lankidetzat hitzarmen hau sinatzeko gaitasun legala aitortzen diote elkarri.

ADIERAZI DUTE:

Lehenengoa.– Espainiako Konstituzioko 124. artikuluaaren arabera, Fiskaltza botere judizialaren barruan dago, autonomia funtzionalarekin, eta bere egitekoa da justizia sustatzea, legezketasuna, herritarren eskubideak eta interes publikoa defendatzeko, epaimahaien independentzia zaintzeko eta haien aurrean gizartearen interesak babesteko. Estatuko Fiskaltza Nagusiari dagokio karrera fiskalaren diseinu estrategikoa eta prestakuntza planak egitea.

Bigarrena.– UPV/EHUren helburuetako bat da “kalitatezko goi mailako irakaskuntza eskaintzea, ikasleen heziketa osoa bultzatzea, eta lanean hasteko beharrezkoa den prestakuntza ziurtatzea”.

Kanpoko praktika akademikoak prestakuntza jardura batzuk dira, ikasleek egiten dituztenak unibertsitateak gainbegiratuta. Haien helburua da ikasleek prestakuntza akademikoan ikasitakoa aplikatzea eta osatzea, eta behar diren gaitasunak eskuratzea jardun profesionalerako prestatzeko, beren enplegarritasuna hobetzeari eta beren ekintzailatza sustatzeari begira.

Hirugarrena.– Hitzarmen hau izenpetzen duten erakundeak guztiz bat datoz bien interesen aldeko helburu horietan. Xede horietako bat da unibertsitateko ikasleei prestakuntza osoa ematea, teoria eta praktika

uztartuz, eta elkarlanerako, ikerketarako eta lankidetzarako ildoak ezartzea, bi erakundeek zehaztutako helburuen arabera.

Laugarrena.- Uztailaren 11ko 592/2014 Errege Dekretuak unibertsitateko ikasleen kanpoko praktikak arautzen ditu eta haien zenbait alderdi zehazten ditu, hala nola praktiken helburuak, erakunde laguntzaileak, prestakuntza praktikoaren hartzaileak, bete beharreko baldintzak, tutoretzak eta hezkuntza lankidetzako hitzarmenen edukiak. Gainera, dekretuak sustatzen du ikasleek praktika horiek administrazio publikoetan egitea, etorkizuneko profesionalen enplegarritasuna hobetzeko, ekintzailetza, sormena eta berrikuntza bultzatzeko, eta ezagutzaren gizartean oinarrituko den eraldaketa ekonomikorako konpromisoa betetzeko.

Hori guztia kontuan hartuta, bi aldeek honako hau

HITZARTU DUTE:

Bakarra.- Hezkuntza lankidetzarako hitzarmen hau izenpetzea, honako klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa: helburua.

Hezkuntza lankidetzarako hitzarmen honek xede du:

1.- UPV/EHUko ikasleek praktika akademikoak —curriculumekoak eta curriculumez kanpokoak— EAEko fiskaltzetan egiteko baldintzak arautzea, unibertsitateko ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituen dekretuari jarraituz (592/2014 Errege Dekretua, uztailaren 11koa) eta UPV/EHUko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Arautegia betez.

2.- Aldeek bien intereseko gaiez elkarlanean ikertzeko, eztabaidatzeko eta hausnartzeko bideak ezartzea.

Bigarrena: praktiken garapena.

1.- Praktiken helburua da Zuzenbide Fakultateko ikasleek Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltzaren benetako funtzionamendua ezagutzea eta Zuzenbideko Graduan jasotako prestakuntza praktikan jartzea, errazago gerta dakien lana aurkitzea eta jardun profesionalera egokitzea. Era berean, ikasleek Fiskaltzako harreman pertsonal eta profesionalen dinamika ezagutzeko aukera izango dute.

2.- Ikasleek egin beharrekoak:

- Fiskalak epaitegi edo auzitegietan parte hartzen duen ikustaldi, deklarazio eta gainerako saioetara joatea.
- Planteatzea eta eztabaidatzea eurak (ikasleak) ikustera joan diren edo joango diren saio horien inguruko kontu prozesalak (intzidenteak, frogak...) eta materialak (prozesuko alderdiek proposatutako gaiak).
- Argudiaketaren diskurtsoa lantzea, hau da, Fiskalak egin behar izaten dituen txostenei dagokiena.
- Oro har, Fiskaltzaren funtzionamendua ulertzea.
- Fiskaltzan erabiltzen diren aplikazio informatikoetara hurbiltzea.
- Lankidetzara onartu ondoren, ikaslea beste eragile juridiko batzuen agerraldietara eta saioetara ere joan ahal izango da, adibidez Fiskaltzaren presentzia beharrezkoa ez den organo judizialen agerraldi eta ikustaldietara.
- Fiskalak ikasleen prestakuntzarako egoki deritzen bestelako zereginak.

3.- Praktiken antolaketa

- Ikasleek Fiskaltzaren espezialitateak ezagutzeko, egoitza, atal edo espezialitate desberdinetan egingo dituzte praktikak, ahal den neurrian, boluntario kopuruaren arabera.
- Horretarako, praktikak errotazio sistema batez egingo dira. Zehazki, ikasleek epe labur bat emango dute Fiskaltzaren egoitza, atal eta espezialitate bakoitzean, praktikaldia amaitu arte. Koordinatzaileak finkatuko du epe zehatza, kasuan kasuko fiskalarekin adostuta. Koordinatzaileek antolatuko dute errotazioen taula.
- Praktiken ordutegia. Oro har, praktikak 09:00etatik 14:00etara izango dira. Dena dela, ordutegia malgua izango da, fiskal tutoreak parte hartu behar duen jardun prozesalen iraupenaren arabera. Tartean guardiako zerbitzuko saioak egongo dira (instrukzio epaitegietan eta emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegian) eta halakoetan maiz gerta daiteke ordutegia luzeagoa izatea.
- Gerta liteke ikasleek fiskaltzaren egoitza batean baino gehiagotan egingo behar izatea praktikak, probintzia beraren barruan. Hori gertatzen bada, ahal dela, hurbileko egoitzetan egingo dituzte.
- Bi koordinatzaile egongo dira praktikak antolatzeko eta kudeatzeko. Bata unibertsitateak izendatuko du eta bestea EAEko Fiskaltza Nagusiak.
- EAEko Fiskaltzak izendatutako koordinatzaileak, praktiketarako izendatutako fiskalekin koordinatuta, honako eginkizun hauek izango ditu:
 - a) Euskal Autonomia Erkidego osoko fiskalei laguntza eskatzea.
 - b) Ikasleen denbora banatzea Fiskaltzaren egoitza, atal eta espezialitateen artean.
 - c) Beste koordinatzailearekin batera, praktika programa bakoitza definitzea, eduki hauekin:
 - Ikasle kopurua programako.
 - Fiskaltzaren zein egoitza, espezialitate eta ataletan egingo diren praktikak.
 - Fiskaltzaren egoitza, espezialitate eta atal bakoitzean eman beharreko denbora.
 - Programa bakoitza garatzeko egutegia.
 - d) Beste koordinatzailearekin batera, praktiketan sor daitezkeen gorabeherak konpontzea.
 - e) Antolaketa fasean praktikak ondo garatzeko komenigarritzat eta egokitzat jotzen diren bestelako zereginak.
- Unibertsitateak izendatutako koordinatzaileak eginkizun hauek izango ditu:
 - a) Ikasleak hautatzea.
 - b) Ikasleak banatzea.
 - c) Fiskal koordinatzaileari ikasleen datuak eta zerrendak ematea.
 - d) Sor daitezkeen gorabeherak konpontzea.
 - e) Fiskal koordinatzailearekin ados jarrita, ikasleen zerrendak eta ibilbideak aldatzea ezusteko egoerarik sortzen bada (ikasleren batek uko egitea, gaixotasun luzeak etab.)
 - f) Praktiken hasiera eta bukaera datak jartzea.
 - g) Ikasleen antolamenduari lotutako beste edozein gai.
- Fiskalak honako eginkizun hauek izango ditu praktiketan zehar:

1. Ikasleei harrera egitea.
2. Ikaslea Fiskaltzaren egoitza, espezialitate eta atalean dagoen bitartean haren zereginak gidatu eta antolatzea.
3. Ikasleari Fiskaltzaren antolaketa eta funtzionamendua azaltzea.
4. Jardueren garapena koordinatu eta gainbegiratzea.
5. Telelana egin dezaketen egunetan, ikasleei egin beharrekoak zehaztea, hala nola, auzigaiak prestatzea, arazo juridikoak aztertzea eta beste eragile juridiko batzuekin egotea.
6. Praktika bukatu eta hamabost eguneko epean, ikasleak egindako jardueren ebaluazio orria bidaltzea.

4.- UPV/EHUK bere gain hartuko du praktiketan zehar ikasleak sor ditzakeen edo berari gerta dakizkiokeen kalte eta istripuen estaldura.

UPV/EHUK emango dio alta eta baja ikasleari Gizarte Segurantzaren, eta berak ordainduko ditu dagozkion kotizazioak ikasleak kanpoko praktika ez ordainduak egiten dituen bitartean, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategineko berrogeita hamabigarren xedapen gehigarria betez.

Hirugarrena: elkarlaneko ikerketa, eta hausnarketa eta eztabaida foroak

1.- Fiskaltza eta UPV/EHU elkarlanean arituko dira dibulgazio eta hausnarketa sozialerako foro edo eremuetan —adibidez ehugune-n— interes sozialeko gaien inguruan, arlo desberdinetako profesionalen arteko elkarrikerketa sustatzeko, herritarren kezka eta interesei erantzuteari begira.

Era berean, ikasleen foroetan ere hartuko dute parte, fiskalen esku hartzea interesekoa denean, gaurkotatutako eta interes informatiboko gaiez eztabaidatu eta hausnartzeko.

2.- Fiskaltzak kolaboratuko du erakunde bien intereseko gaietan lan egiten duten UPV/EHUko ikertaldeen, eta prest egongo da ikerketetarako lagungarriak diren informazioak edo datuak trukatzeko. Informazio hori zenbakietara mugatuko da, estatistikei begira, eta beti errespetatu beharko dira Estatuko Fiskaltza Nagusiak datu horien inguruan urtero ezartzen dituen informazio epeak. Halako informazio trukeak ikerketetarako besterik ez dira izango, hitzarmen honen jarraipen batzordeak onartzen duen ereduaren arabera egingo dira, eta datuak babesteko legeria beteko dute.

Laugarrena: datu pertsonalen babesa.

Datuen babesari dagokionez, alde bietan honako hauek bete beharko dituzte: 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoaren babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/CE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko; eta gai horretaz indarrean dauden gainerako arauak.

Datu pertsonalen jabeek legean jasotako eskubideak baliatu ahal izango dituzte hitzarmen hau sinatzen duten erakundearen aurrean, tratamenduaren arduradunen helbideetara idatziz.

Ministerio Fiskalari dagokionez, eskubide horiek helbide honen bidez baliatu ahal izango dira: <https://www.fiscal.es/ejercicio-de-los-derechos>.

Ikertzaileek eta ikasleek isilekotasun eta konfidentzialtasun betebeharra izango dute fiskaltzetan dauden bitartean beren ezaupidera heldzen diren datu pertsonalei dagokienez, baita egonaldia amaitutakoan ere. Horretarako, bakoitzak bere konfidentzialtasun konpromisoa sinatu beharko du.

Sekretu eta konfidentzialtasun eginbeharra ez betetzeak erantzukizun penalak ekarri ahal izango ditu, edota datuak babesteko legeriaren arabera erantzukizunak.

Praktiketako ikasleek eta ikertzaileek konfidentzialtasun konpromiso bat (I. eranskina) sinatu beharko dute jardunean hasi aurretik.

Bosgarrena: finantzaketa.

Hitzarmen honek ez dakar finantzaketa betebeharririk edo kontraprestazio ekonomikorik aldeentzat.

Seigarrena: zabalkundea.

Hitzarmen honen inguruko publizitate eta gardentasun betebeharrak legalak betetzeaz gain, UPV/EHUK EAEko fiskaltzen eta EAEko Administrazio Orokorraren lankidetzan nabarmenduko du bere urteko memorian eta hitzarmen honetako jardueren berri zabaltzeko antolatzen dituen ekimen guztietan.

Zazpigarrena: Jarraipen Batzordea.

- 1.- Jarraipen batzorde bat eratuko da, praktikak egitean edo hitzarmena betetzean sor daitezken gorabeherak ebazteko. Batzordea UPV/EHUKo bi ordezkari eta Fiskaltzako beste bik osatuko dute.
- 2.- Bi erakundeak urtez urte txandakatuko dira batzordeko burua izateko. Lehenengo txanda UPV/EHUK egingo du.
- 3.- Batzordearen funtzionamendua, bileren maiztasuna eta erabakien lotesletasuna arautuko dira Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen arabera (40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Atariko Titulua, II. kapitulua), bertan zehazten baita kide anitzeko organoen funtzionamendua.

Zortzigarrena: hitzarmenaren indarraldia

- 1.- Hitzarmenak bi urte iraungo du sinatzen denetik hasita. Epe hori amaituta, beste bi urtez luzatuko da automatikoki, non eta alderen batek ez duen hitzarmena denuntziatzen, indarririk gabe geratzea nahi duen ikasturtearen aurreko ikasturteko martxoa baino lehen.
- 2.- Era berean, alde bakoitzak hitzarmena denuntziatu ahal izango du beste aldeak urratu badu. Halakoetan ere epe berean egin beharko da denuntzia, hau da, hitzarmena indarririk gabe utzi nahi den ikasturtearen aurreko ikasturteko martxoa baino lehen.
- 3.- Idatziz egin beharko da denuntzia, eta egoitza elektronikoaren bidez jakinarazi.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela erakusteko, alde biek lankidetzan hitzarmen hau sinatu dute, bi aletan, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

UPV/EHUKo ERREKTOREA
Jose Ramon Bengoetxea Caballero

EAEko FISKAL NAGUSIA
Carmen Adán del Río

ERANSKINA

”Konfidentzialtasun konpromisoa”

“Honen bidez, ikasle edo ikertzaile jaunak/andreak (NAN zk.:) adierazten du sekretu eta konfidentzialtasun eginbearra beteko duela Fiskaltzan egindako kanpoko praktiketan edo ikerketa lanetan bere ezaupidera heltzen diren datu pertsonalei dagokienez, baita egonaldia amaitutakoan ere. Sekretu eta konfidentzialtasun eginbearra ez betetzeak erantzukizun penalak ekarri ahal izango dizkio, edota datuak babesteko legeriaren arabera erantzukizunak”.